

ikasmina:

Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko
ikasketari buruzko dokumentuak

Etengabeko ikaskuntza Gipuzkoan, Estatuan eta Europar Batasunean

94. dokumentua

2023ko azaroa

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
1.1. Aurkezpena	3
2. Etengabeko ikaskuntza Gipuzkoan.....	4
2.1. Etengabeko parte-hartzea ikaskuntzan	4
2.2. Ikastea, adinaren eta lortutako prestakuntzaren arabera	5
2.3. Ikaskuntza eta lan-merkatuarekiko lotura.....	7
3. Gipuzkoaren egoera alderatua	8
3.1. Gipuzkoa eta Estatuko autonomia erkidegoak	8
3.2. Gipuzkoa eta EB-27.....	11
3.2.1. Gipuzkoa eta Europako herrialdeak.....	11
3.2.2. Gipuzkoa eta Europako erkidegoak.....	13

1. Aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Gipuzkoak ezagutza lehiakorrean eta dinamikoan oinarritutako ekonomia duen gizartea bihurtu nahi du. Horretarako, ikaskuntza oso tresna garrantzitsua da, izan ere, pertsonen eta horiek osatzen duten gizartearen hazkunde pertsonala, profesionala eta soziala bultzatzen ditu.

Helburu horrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak uste du ikaskuntza eta talentuaren garapena elementu estrategikoak direla Lurraldearen aurrerapena eta kohesio soziala lortzeko pertsonak ardatz hartuta: Gipuzkoak sozialki jasangarria den garapen-eredua eraiki nahi du, pertsonen talentua, erakundeen dinamismoa eta bultzada teknologikoa elkartuz.

Gero eta konplexuagoa, malguagoa den eta interkonektatuago dagoen gizartean, ikaskuntza-prozesuak oso garrantzitsuak dira; are gehiago, pertsonen bizitza osoan zehar landu behar dituzte (pertsonala, zibikoa, soziala edo profesionala), eta horrela, beren ezagutzak, gaitasunak eta kualifikazioak mantendu, hobetu eta zabalduko dituzte.

Ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako helduek (25 eta 74 urte bitartekoak) egindako ikaskuntza-jardueraren azterketa eta jarraipena jorratzen ditu, titulu ofizial bat lortzera bideratutako prestakuntza-jarduerak (ikaskuntza formala) eta modu antolatu eta iraunkorrean egiten direnak, baina titulu ofizialik ez dakartenak (ikaskuntza ez-formala) kontuan hartuta. Dokumentu honen emaitzak 25 eta 64 urte bitarteko taldean eta kontsulta egin aurreko lau astetan egindako ohiko ikaskuntzako edo etengabeko ikaskuntzako jardueretan oinarritzen dira, Europako eta Estatuko autonomia erkidegoetako emaitzekin alderatu ahal izateko.


2. Etengabeko ikaskuntza Gipuzkoan

2.1. Etengabeko parte-hartzea ikaskuntzan

Gipuzkoako 25 eta 64 urte bitarteko pertsonen % 21,1ek etengabe ikasten du

2022an Gipuzkoako 25 eta 64 urte bitarteko helduen %21,1ek hartu du parte etengabeko ikaskuntza-jardueretan, zeinak inkesta egin aurreko 4 astetan egindako ikaskuntza-jarduerak kontuan hartzen baititu. Eraitza hori 2021ekoa baino hobea da (% 18,8), eta emakumeen parte-hartzea gizonena baino apur bat handiagoa da.

1. grafikoa Etengabe ikasten duten pertsonak*, generoaren arabera. 2021-2022



(*): Kontsulta egin aurreko 4 astetan.

Iturria: Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

2.2. Ikastea, adinaren eta lortutako prestakuntzaren arabera


Parte-hartzeko tasa nabarmen murrizten da pertsonen adinarekin

Pertsonarik gazteenek (25-34 urte) parte-hartze handiagoa dute etengabeko ikaskuntzan, izan ere, lau pertsonatik batek (% 25,7) adierazi du kontsultaren aurreko lau astetan ikaskuntza-jardueraren bat egin duela.

Halaber, 35 eta 44 urte bitarteko (% 22,8) eta 45 eta 54 urte bitarteko (% 21,9) bost pertsonatik batek baino gehiagok adierazi du etengabe ikasten duela. Azken adin-talde horretan, nabarmen handitu da parte-hartzea aurreko urtean erregistratutako balioekin alderatuta (ehuneko +6,6 puntu).

Azkenik, talderik helduenak du parte-hartze tasarik baxuena (% 15,4), baina urtez urte hobera egin du (ehuneko +2,5 puntu), eta aurreko kontsultetan hautemandako goranzko joera berretsi du. Hori azaltzen duen faktorea da lortutako ikasketen maila hobetu egin dela (aurreko belaunaldiekin alderatuta), eta ezinbesteko palanka da hori ikaskuntza-jarduerarekin jarraitzeko.

2. grafikoa Etengabe ikasten duten pertsonak eta adin-taldeak. 2021-2022



Iturria: Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Zenbat eta prestakuntza handiagoa izan, orduan eta parte-hartze handiagoa da etengabeko ikaskuntzan


Hala, Gipuzkoako helduen (25-64 urte) ikasketa-maila erabakigarria da etengabeko prestakuntzarako jardueretan parte hartzeko garaian. Bizi osoko ikaskuntzari buruz egindako azterketa-ildoan zehar erabat berretsita geratu da hori: etengabeko prestakuntzako parte-hartze tasa handitu egiten da lortutako ikasketa-mailarekin, eta hala gertatzen da aurreko kontsultetan ere xede-kolektiboaren artean (25-64 urte), zein biztanleria heldu osoaren artean (25-74), etengabeko ikaskuntzarako (kontsulta egin aurreko 4 asteak) zein ikaskuntza iraunkorrerako (azken hamabi hilabeteak).

Zehazki, hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen heren batek (% 32,8) etengabeko ikaskuntza-jarduerak egin ditu, eta ratio hori % 15,3ra jaisten da bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen galdetzerakoan. Azkenik, lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen parte-hartze tasa askoz ere baxuagoa dute, ez du ia % 6 gainditzen.

Azkenik, emakumeek hirugarren mailako ikasketen tasa handiagoa dute, eta horrek azalduko luke etengabeko ikaskuntzan parte-hartze apur bat handiagoa izatea, dagoeneko aipatu den moduan.

Oharra: kontuan izan behar da korrelazio handia dagoela egindako ikasketen eta pertsonen adinaren artean, une historiko bakoitzean ikasteko aukeren ondorioz.

3. grafikoa Etengabe ikasten duten pertsonak eta ikasketa-maila. 2022



Iturria: Sustapen Ekonomikoko eta Proiektu Estrategikoetako Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia.

2.3. Ikaskuntza eta lan-merkatuarekiko lotura

Langabezian dauden pertsonen ikaskuntza-tasa handiagoa dute

Honi atxikitako taulan ikus dezakegu etengabeko ikaskuntzan izandako parte-hartzea, pertsonen lan-merkatuarekin duten harremanaren arabera.

Hala, langabezian dauden pertsonen parte-hartze tasa altuagoa dute (% 24,4), lanean ari diren pertsonen dagokiona baino apur bat altuagoa (% 20,8). Aldiz, parte-hartze maila hori nabarmen murrizten da erretiratuen artean (% 15,6) eta hein handiagoan oraindik lan-merkatu sartzu ez diren pertsonen artean (% 8,9).

Hortaz, biztanleria aktiboak -ordaindutako enpleguan duenak eta/edo lan egin nahi duenak- biztanleria ez aktiboak -erretirodunak edota lan merkatuan sartu gabeak- baino neurri handiagoan ikasten du.

Gauzak horrela, helduek (langabeek zein langileek) ordaindutako lan-merkatuarekiko¹ duten "hurbiltasun" handiagoak eragina du ikaskuntzako parte-hartze handiagoan, eta ikasten jarraitzeko motibazio profesionalak pertsonalak baino garrantzia gehiago duela egiaztatzen du.

1. taula Etengabe ikasten duten pertsonak eta laneko egoera. 2022

25 eta 64 urte arteko biztanleriaren %

	2022
Lan edo lanbide bat garatzen du	20,8
Langabezian	24,4
Erretiroa hartuta	15,6
Beste egoera batzuk (lan-merkatu sartzu gabe oraindik)	8,9
Guztira	21,1

Iturria: Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.

¹ DOK 87 "Ikasten duten pertsona landunak Gipuzkoan" eta DOK 92 "Ikasten duten pertsona helduak Gipuzkoan 2023" dokumentuetan zabalago jorratu dira alderdi horiek. www.ikasmina.eus atarian daude eskuragarri.

3. Gipuzkoaren egoera alderatua

3.1. Gipuzkoa eta Estatuko autonomia erkidegoak

Gipuzkoa lehenengoa da etengabeko ikaskuntzaren Estatuko rankinean

Eurostaten preskripzioetatik abiatuta, etengabeko ikaskuntzari buruzko modulua pertsonen lan-jarduerari buruzko kontsultaren baitan egiten da (Laneko indarrari buruzko Europako Inkesta, LFS). Hala, helduek (25-64 urte) etengabeko ikaskuntzan duten parte-hartzeari buruzko informazioa BAltik -Biztanleria Aktiboaren Inkesta- dator (Estatistikako Institutu Nazionala).


Estatu-mailan lortutako emaitzek berresten dute ikaskuntza-modalitate horretako parte-hartze tasarik altuenak EAEkoak (% 17,5) eta Nafarroakoak (% 18,2) direla, eta, txikiak, berriz, Gaztela-Mantxa, Katalunia eta Balearretakoak, % 13 inguruko parte-hartze tasekin.

Gipuzkoak (% 21,1) EAEko langa gaindituko luke, baina emaitza hori tentuz hartu behar da, helburu desberdinak dituzten bi iturri estatistikotatik eratortzen baitira². Hala ere, beste emaitza batzuek, hala nola lanean ari diren biztanleen ikasketak, erakutsiko luke Gipuzkoaren emaitza hobea dela: hain zuzen, lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen pisu erlatiboa txikiagoa baita (ehuneko -2 puntu Araba eta Bizkaiarekin alderatuta) bigarren mailako edo goi mailako ikasketena baino (ratorik altuena duen lurraldea da Gipuzkoa, % 44).

² Autonomia Erkidegoei buruzko datuak BAltik datoz, eta azterketa horren helburu nagusia lan-jarduerarekiko harremana neurtzea da. Bestelako informazioa biltzea, esaterako, ikaskuntzari buruzkoa, bigarren mailakoa da, eta, horregatik, baliteke erantzunak kalitate gutxiago izatea. Bestalde, Gipuzkoaren datua Pertsonen Bizi Osoko Ikaskuntzaren Inkestatik dator, eta horixe da, hain zuzen, inkesta horren helburua.

4. grafikoa Etengabe ikasten duten pertsonak eta autonomia erkidegoa. 2022

25 eta 64 urte arteko biztanleriaren %



Iturria: Hezkuntza eta LH Ministerioa eta GFA (Ekonomia Sustapen eta Proiektu Estrategikoetako Dep.)

Zeharkako egoera: emakumeen parte-hartzea handiagoa da etengabeko ikaskuntzan

Grafikoan egiaztatu daitekeen moduan, autonomia erkidego guztietan emakumeek gizonak baino parte-hartze tasa handiagoak dituzte, eta aldea ia 6 puntukoa da hainbat erkidegotan, hala nola Nafarroan, Errioxan edo Gaztela eta Leonen.


Datu orokorraren arabera, Gipuzkoak du etengabe ikasten duten emakumeen proportziorik handiena (% 22,6), eta gero, Nafarroa (% 20,9) eta Euskadi (% 19,7) aurkitzen dira. Beste muturrean daude Gaztela-Mantxa eta Katalunia, emakumeek etengabeko ikaskuntzan duten parte-hartzea ez baita % 15era heltzen.

Gizonen kolektiboari dagokionez, talde honek ere Gipuzkoan du parte-hartze tasarik altuena (% 19,4), Estatuan buru diren autonomia erkidegoetatik distantzia jakin batera. Hauek dira erkidego horiek: Madril (% 15,7), Nafarroa (% 15,5) eta EAE (% 15,2). Kontrara, Errioxak du tasarik baxuena (% 11,0), Katalunia eta Gaztela-Mantxarekin batera (% 11,6, bi kasuetan).

Aipatu den moduan, Gipuzkoako emaitzak interpretatzerakoan ulertu behar da egoera hobea dela EAEko balioekin alderatuta, baina emaitza horiek helduen ikaskuntza-jarduera ardatz duen inkesta batetik aterata daudela -horrek hobetu egin

dezake emaitza, bai erantzunak jasotzeko ikuspegitik, bai jasotako emaitzen tratamenduaren ikuspegitik-.

5. grafikoa Etengabe ikasten duten pertsonak, autonomia erkidegoaren eta generoaren arabera. 2022



Iturria: Hezkuntza eta LH Ministerioa eta GFA (Ekonomia Sustapen eta Proiektu Estrategikoetako Dep.)




3.2. Gipuzkoa eta EB-27

3.2.1. Gipuzkoa eta Europako herrialdeak

Gipuzkoak ikaskuntzan duen parte-hartzeak Europako batez bestekoa gainditzen du

EB-27 osorako, % 11,9koa da 25 eta 64 urte bitarteko pertsonen etengabeko prestakuntzan duten parte-hartzearen tasa. Bai Gipuzkoan (% 21,1), bai EAEn (% 17,5), ratioak Estatuko batezbestekoa (% 15,3) baino altuagoak dira eta parte-hartzea Frantzia (% 13,3) edo Alemaniakoa (% 8,1) baino altuagoa da. Hala ere, Gipuzkoa urrun dago oraindik Suedia (% 36,2) edo Danimarkako (% 27,9) balioetatik. Horiek dira Europako rankingaren buru.

6. grafikoa Etengabeko parte-hartzea ikaskuntza-jardueretan eta Europako herrialdeak. 2021-2022



Iturria: Eurostat, Hezkuntza eta LH Ministerioa eta GFA (Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua)


Grafikoan ikus daitekeen moduan, oro har, 2022ko emaitzek berresten dute hobekuntza nabarmena izan dela 2021 urtearekin alderatuta (urte bereziki arraroa izan zen hori), eta pandemiaren aurreko hobekuntza-joera mantendu dela.

lido horretatik, Gipuzkoak 2,3 puntu egin du hobera eta Danimarka gailendu da gainerako herrialdeen artean, 5,6 puntu hobetu baitu etengabeko ikaskuntzako parte-hartzearen tasa.

Zeharkako egoera, baita Europan ere: emakumeen parte-hartze tasa handiagoa da

Bestalde, generoaren arabera emaitzek erakusten dute emakumeen parte-hartzea handiagoa dela gizonena baino etengabeko ikaskuntza jardueretan, eta zeharka gertatzen den egoera dela berresten du. Gainera, nabarmentzekoak dira Suediak (% 43,2) edo Danimarkak (% 32,2) lortutako emaitzak, buru baitira emakumeek etengabeko prestakuntzan duten parte-hartzean.

7. grafikoa Etengabeko parte-hartzea ikaskuntza-jardueretan, Europako herrialdeak eta generoa. 2022



Iturria: Eurostat, Hezkuntza eta LH Ministerioa eta GFA (Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua)

Azkenik, aipatu behar da emakumeen eta gizonen parte-hartzearen arteko alderik handienak Suedian (ehuneko +13,8 puntuko aldea) eta Danimarkan (ehuneko +8,6 puntuko aldea) daudela. Gainerako herrialdeetan bi kolektiboen arteko aldea ez da hain nabarmena, eta EB-27ko batez besteko aldea ehuneko 2,1 puntukoa da.

3.2.2. Gipuzkoa eta Europako erkidegoak

Erkidego mailako emaitzak bat datoz herrialdearen emaitzarekin

Erantsitako taulak hautatutako herrialdeetarako Eurostatek NUT-2 mailan emandako informazioa jasotzen du. Lehen emaitza nabarmenena da erkidegoak herrialdearen batez besteko balioetik nahiko hurbil daudela oro har. Emaitza hori egonkorra da, eta iradokitzen du ikaskuntzako etengabeko parte-hartzea estatu bakoitzean ohikoa den dinamika sozialaren (edo sustapen politikoaren) arabera dela.

Nabarmentzekoak dira Eskandinaviako herrialde eta eskualdeetako etengabeko ikaskuntzako tasa altuak. Horiek oso urrun daude Alemania edo Frantziako eta horien erkidegoetako erregistroetatik. Etengabeko ikaskuntzan emaitzarik onena duten Europako erkidegoen artean Suedia, Danimarka eta Herbehereetako erkidegoak daude, baita Islandia (% 27,1), Helsinki-Uusimaa (% 27,7, Finlandia) eta Bratislavský kraj (% 26,2, Eslovenia) ere.

2. taula Europako erkidegoak eta etengabeko ikaskuntza, 2021 eta 2022an

25 eta 64 urte arteko biztanleriaren %

	2021	2022
Suedia	34,7	36,2
Stockholm	36,5	38,1
Västsverige	34,6	36,8
Småland med öarna	32,6	36,0
Danimarka	22,3	27,9
Hovedstaden	25,9	31,2
Midtjylland	22,0	27,3
Syddanmark	19,3	26,0
Herbehereak	26,6	26,4
Utrecht	29,5	29,0
Noord-Holland	28,3	27,5
Zuid-Holland	27,4	27,3
Frantzia	11,0	13,3
Aquitaine	13,5	16,7
Rhône-Alpes	12,3	15,4
Midi-Pyrénées	11,7	14,6
Alemania	7,7	8,1
Berlin	10,7	11,2
Bremen	9,8	11,0
Gießen	10,5	10,7

Iturria: Eurostat.

Izenburua:	Etengabeko ikaskuntza Gipuzkoan, Estatuan eta Europar Batasunean 94. dokumentua, 2023ko azaroa
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua Gipuzkoako Foru Aldundia 
Egilea:	IKEI Research & Consultancy S.A.
Landa-lana:	Datakey, S.A.
Informazio-iturriak:	Eurostat eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa